

eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

IKERKETA BIOMEDIKOA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Ikerketa biomedikoa funtsezko erreminta da egun biztanleriaren bizi-kalitatea eta -itxaropena hobetu eta bere ongizatea handitu ahal izateko. Arlo honek aldaketa izugarriak bizi izan ditu azken urteotan, metodologikoki zein kontzeptualki. Ikerketa biomedikoak egun bere esku dituen analisi-erreminta berriak ikusita, orain arte sendaezinak ziren patologien tratamenduan eta sendatzean ere pentsatzen hasiak gara.

Masterraren xedea da biomedikuntzaren arloan modu autonomoan ikerketa lanak egiteko gai diren ikertzaileak prestatzea. Honela, programak hiru helburu nagusi ditu: i) gaixotasunaren garapenean esku

hartzeko mekanismo fisiologiko, zelular eta molekularrei buruzko prestakuntza eguneratuaz jabetzea eta, besteak beste, eredu esperimentalen diseinuan eta metodologia bioinformatikoan trebatzea; ii) interes biosanitarioko gaien inguruko emaitza eta ondorio baliagarriak lortzea eramango duten lanak garatzeko arazoak identifikatu, lan hipotesiak sortu eta metodologia egokia aukeratzeko jasotako ezagutzak integratzeko gai izatea; eta iii) interes biosanitarioko gaiak aurkitzeko helburuarekin, literatura zientifikoa eraginkortasunez erabiltzeko, ulertzeko eta kritikatzeko gai izatea.

SARBIDEA

Farmaziako, Albaitaritzako, Biologia Zientzietako, Medikuntzako, Biokimikako, Bioteknologiako, Odontologiako, Erizaintzako, Ingeniaritza Biomedikako eta Fisioterapiako Diploma, Gradu edo Lizentziatura. Ikerketa biomedikoa egiteko interesa duten ikasleak.

Merituen balorazioa sartu ahal izateko: curriculum, ikerketa jarduerak, artikulua, ikerketa proiektuetan parte hartu izana, etab., (% 30); ikasketa espediente (% 70).

IRTEERA PROFESIONALAK

Enpresa eta ikerketa zentro pribatuak (bioteknologia, farmazeutikoak, etab.). Arlo akademikoan: doktoregoa, irakaskuntza eta ikerketa unibertsitate eta ikerketa biomedikoko zentro publikoetan (ospitaleak, ikerketa biosanitarioko institutuak, etab).

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Irakaskuntza mota:

Hizkuntza:

Gutxi gorabeherako prezioa:

Egutegia:

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa).

Eskolan bertakoa.

Gaztelania.

2.200-2.400 euro.

Irailetik ekainera, arratsaldez.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak <hr/> 20 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak <hr/> 20 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-lanak <hr/> 20 ECTS kreditu	Gutzira <hr/> 60 ECTS kreditu
--	--	---	----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Gaixotasun Metabolikoen Oinarri Molekularrak.
- Teknologia Molekularra Biomedikuntzan.
- Oinarri Teknologikoko Enpresen Sorkuntza.
- Ariketa Fisikoaren Medikuntza eta Fisiologia.
- Ugalketaren eta Enbrioiaren Garapenaren Biologia.
- Neurotransmisioaren eta Neuromodulazioaren Arloko Aurrerapenak.
- Ikerketa Proiektuen Aurkezpena: Biosasunaren Arlo Zientifikorako Komunikazio Trebetasunak eta Teknikak.
- Zelulen eta Molekulen Arloko Aurrerapenak Minbiziaren Ikerketan.
- Onkologia Esperimentalak.
- Zelulen Seinaleztapenari buruzko Ikerketako Kontzeptu eta Metodo Aurreratuak.

HARREMANETARAKO

Arduraduna:

Aintzane Apraiz García

Tel: 94 601 2950

Posta elektronikoa:

aintzane.apraiz@ehu.eu

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

